

## **SEGMENTAZIOA - AJIA Deliveries**

### **Merkatuaren azterketa faseak**

Gure enpresak merkatuaren azterketa egin ondoren, hiru bezero mota lagunduko ditu. Honako hauek dira:

- Webgune honekin bereziki **adin nagusiko pertsonen lagundu** nahi diegu, askok ezin direlako etxetik aldendu mugikortasun-arazoengatik edo beste gaixotasun batzuegatik. Hau da, egin nahi duguna erosketak etxeetara eramatea da.
- **Familiei ere lagunduko** diegu, umeak duten gurasoak normalean denbora handia egon behar dira beraien gainean eta hobe dute etxean beraiekin egotea, umeak erosketak egitera eraman baino. Orduan, gu arduratuko gara haien erosketak etxera eramateaz era seguru eta erraz batean, haiek arduratu gabe.
- **Denbora ez duten pertsonak:** pertsonak normalean ez dute denbora erosketak egiteko, lanean daudelako edo beste atalean aipatu dugun bezala, haurrak dituztelako, orduan gure negozioarekin haien erosketak egin ahal izango dituzte eta denbora aurreztuko dute, produktuak haien etxeetara eramango ditugulako eta ahal dutelako webgunearen bidez azkar batean erosketak egin ahal dute.

**DATUEN BILKETA** egiteko eta gure bezeroen informazioa eskuratzeko, inkestak egingo ditugu online eta gmail bidez. Inkestan honako informazioa ezagutu nahi dugu: adina, zer motatako produktuak erosten dituzten, ze supermerkatutan erosten duten, gure laguntza jasotzea nahi duten edo zer motatako laguntza nahi dute (enpresarekin erlazionatuta). Inkesta honen bitartez, bezeroen informazioa eskuratzear gain, haien beharrak jakingo ditugu.

Gure enpresa gero eta jende gehiagora heltzeko eta bezero gehiago lortzeko, hau da, gure salmentak handitzeko, publizitatea egingo dugu (kanaletan azalduta). Gure publizitatea desberdina izango da adinaren arabera. Pertsona bakoitzarentzat publizitate mota bat egongo da, hau da, pertsona bakoitzari gehien kontsumitzen duenari buruzko iragarkiak agertuko zaizkio.